

MUGIKORTASUN ARAUTEGIA GIZARTE LANGINTZAKO TITULAZIORA EGOKITZEA

2023-02-22ko Fakultate Batzarrean onartuta

1. Gizarte langintzako ikasleek **hirugarren mailan (3. mailan)** soilik parte hartu ahal izango dute parte mugikortasun programetan. Banaka baloratuko dira gainerako baldintzak betetzen dituzten ikasleen salbuespeneko kasuak.
2. Ikasle eskatzaileen espedienteak aztertu ondoren, mugikortasun-koordinatzailea harekin harremanetan jarri ahal izango da, kasu partikularrak batera baloratzeko.
3. **Nazioarteko mugikortasuneko** plaza bat lortu nahi duten ikasleek helburuko-unibertsitate bakoitzak ezarritako **hizkuntza-baldintzak** bete beharko dituzte.

Nolanahi ere, eskaerarekin batera, ikasleak dituen hizkuntza-tituluak edo ziurtagiriak erantsiko dira, merezimendu gisa baloratuko baitira batez besteko notan berdinketa egonez gero. Merezimendu gisa baloratuko dira, halaber, egonaldiaren xede den unibertsitatea (herrialdeko hizkuntza ofiziala) dagokion herrialdeko berezko hizkuntza-ikastaroren bat egiten ari dela egiaztatzen duten matrikula-ziurtagiriak edo ziurtagiriak.

Mugikortasun-egonaldian helmugako unibertsitatean egindako hizkuntza-ikastaroak ezin dira baliozkotu graduako irakasgaiekin.

4. Nazioarteko mugikortasun-programa batean parte hartu duten ikasleek atzerriko ikastetxeetan lortutako kalifikazioak atzerriko unibertsitate-ikasketen edo tituluen kalifikazio-eskalen eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Espainiako unibertsitateen kalifikazio-sistemaren baliokidetasunen arabera bihurtuko dira, helmugako unibertsitateak beste baliokidetasun-taula bat helarazi ezean.

https://www.universidades.gob.es/wp-content/uploads/2022/12/ANEXO_I_ESCALAS_comp.pdf

5. **SICUE programan parte hartzen** duten ikasleek, gehienez ere, fakultatean gainditu gabeko irakasgai bakarra sartu ahal izango dute akordio akademikoan, **bi deialdiko mugarekin**.
Ikasleek jatorrizko unibertsitatean egin ahal izango dute ezohiko deialdia.
6. **Ikasle bisitariek** ezin izango dituzte bere akordio akademikoan sartu laugarren mailako Practicuma, Lanbide Jarduna Gainbegiratzea eta GRAL irakasgaiak.

lh-gldekano-idazkari@ehu.eus

<http://www.ehu.eus/es/lan-harreman-eta-gizarte-langintza-fakultatea>

ARABAKO CAMPUSA
CAMPUS DE ÁLAVA
Apraiztarrak, 2/Los Apraiz, 2
01006 Vitoria –Gasteiz
Araba
T: +34 945013310

BIZKAIKO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Sarriena z/g
48980 Leioa
Bizkaia
T: +34946013092